

## 2. Euskera-Erderak: erkaketa saioa

*Eñaut Etxamendi Gezainburu*



### 2.1. Nor

#### a) Ikasketak / Studies / Estudios

---

- Nekazal peritua Purpan Toulouse 1957
- I.E.P.(Institut d'études politiques 1958)
- Berriz unibersitat 2003 (filologia), 2007 doktoregoa (Baiona-Pau unibersitea)

#### b) Eskarmentua / Experience/ Experiencia

---

- 2 urte lan Senegal-en (M.A.S. Mission d'Aménagement du Sénégal)
- 2 urte Nantes (F), nekazal lizeo batean erakasle
- 1963 Benafarrant (Garazi-Amikuze-Hazparne) erakasle lizeoetan eta aprendizgoko neska-mutil eskoletan
- 1967 Mitiriñen (BN) lur bat eros ta negutegi bat eraiki, andre ta biok han lanean 2009 arte, erakasle ere (asti zatituz) 2005 eraino
- Kantagintza eta kantari Larralde lagunarekin 1968-2013 zazpi eskual herrietan
- Idazle (ipui-eleberri, Maiatz-en) 1970tik hunaraino.

#### c) Argitalpenak / Publications / Publicaciones

---

- Doktorego lana EUSKERA-ERDERAK: Basques et Langues Indo-européennes, erkaketa saioa.

#### d) Harremanetarako / Contac / Contacto

---

- arnaudetchamendy[abildua]gmail.com

## 2.2. Laburpena / Abstrac / Resumen

### a) Laburpena. Euskera eta erdarak: erkaketa saioa

---

EUSKERA-ERDERAK gure lanak bi zati nagusi daduzka :

1- euskal gramatika edo elaraudiaren erkaketa indo-europar gramatika ber-eraikiarekin (J. HAUDRY, Lyon-go Unibertsitate, L'indo-européen).

2- hiztegi ez-oso bat, hitz andana baten jatortza balizkoez

Lan hau ez da euskal hiztegi etimologiko edo hitz-izurrizko oso baten aurkeztekoa, ez baitugu nehola ere gure hiztegi osoari buruzkorik gogoan izan, baina bakarrik adibide bezala erkagarritzat berexi bizpahiru milako bat era, edo hitzei buruzko ikerlanaren ezagutzerat ekartzekoa. Halarik ere uste dugu hitz familia garrantzitsuenez jabetzeko nahikoa badugula azterturik. Oroz lehen gure laneko noranolaketa edo metodoak, erka-laneko, ditugu nahi aurkeztu. A. Meillet latin (lat.) klasikoaz, P. Chantraine greziera (gr.) klasikoaz, jokatu diren gisarat inahalduz gu ere jokatzen.

Ez da lan erreza euskeraren erkaketa baten eginahaltzen hastea, bereziki indo-europear (erderak) hizkuntzekin, zeren "egia" ofiziala, aspalditikoa delarik, gure hizkuntza osoki arrotz dela indo-europar hizkuntzekin eta ikerlan bidezidor hori itsua dela behin betikotz.

### b) Abstrac. Basque and Indoeuropean languages: contrast test

---

Euskera Other Indo-European languages. Our work consists of two main parts.

1- Grammar or rules of language compared to the reconstruction of Indo-European (J. Haudry, University of Lion, L'indouopeen)

2- Dictionary not extensive, but about a group of supposedly original words.

This work is not an etymological dictionary nor of sources, we have not attempted in any way to keep in mind our full lexicon, but a comparative sample of two or three thousand words to publicize the work. Nevertheless we believe that the most important groups of words has been treated. First of all, we present our purpose and method. What we have practiced is the applied bay A.Meillet latin (lat.) Classic Greek P.Chantraine (gr.) Classic.

It has not been an easy task to start a comparison, especially against "erderik" languages, knowing that the official truth since ancient times, is that our language is completely foreign to the Indo-European and the path has always been blind.

### c) Resumen. Euskera-Otras lenguas: ensayo de comparación

---

EUSKERA-OTRAS LENGUAS nuestro trabajo tiene dos partes significativas:

1- la comparación de la gramática vasca con la reconstruida gramática indoeuropea (J. HAUDRY, Lyon-go Unibertsitate, L'indo-européen).

2- un diccionario incompleto sobre la procedencia de un conjunto de voces.

Este trabajo no es para presentar un diccionario etimológico vasco, ya que no hemos tenido en cuenta el hacer uno sobre nuestro completo diccionario, si, empero, hacer uno de unas dos o tres mil palabras comparables. De todas formas, creemos tener suficiente como para darnos cuenta de las principales familias de palabras. En general, queremos mostrar los métodos de comparación de nuestro trabajo. Procurando actuar tal y como lo han hecho A. Meillet sobre latín (lat.) clásico, P. Chantraine sobre griego (gr.) clásico.

No es fácil comenzar a hacer una comparativa del euskera, en especial con las lenguas indoeuropeas (otras lenguas no vascas), ya que la "verdad" oficial, desde tiempo atrás se empeña en mantener que nuestra lengua es extraña a los indoeuropeos y que dicho camino es inservible definitivamente.

## 2.3. Txostena / Communication / Ponencia

### Sar hitza

---

*Orain arte egon bai hiz inprimitu bagerik  
orain hi ebiliren mundu guzietarik*

#### a) Sarrera

---

Ez da lan erreza euskeraren erkaketa baten eginahaltzen hastea, bereziki indo-europar (erderak) hizkuntzekin, zeren "egi" ofizial, aspalditokoa delarik, gure hizkuntza osoki arrotz dela indo-europar hizkuntzekin eta ikerlan bidezidor hori itsua dela behin betikotz.

Ikus Meillet konparatistaren hitz hauek : *"il ya des langues qui, étant entourées de langues d'une autre famille, ne se laissent pas grouper avec les langues voisines et ne rappellent même aucune langue connue. Leur système gramatical n'offre de concordances précises avec aucun autre idiome, ou du moins n'en signale-t-on pas, c'est le cas du Basque.* GUK azpimarratu Meilleten perpaus zuhurra salatu gabe, bada gutartean jaun « mintzalarizalerik », errexegi mintzo denik Web-en, Meillet hartuz bermetzat, goraki dionik, Meillet-ez geroz delako senide-gabetza euskerak beti hor daukela, eta ere berriagorik azaltzekotz, jaun mintzalari profesional horien lanetik letorkeela bakarrik . Nork bere buruaren intsentsatzea Asto jaunarena zela, hemen burgoi galantarena, ez zakienak ikasiko du.

Bestalde, gure hiztegiaren fontsezko etimologia edo hitz-izurrien ikerlanik, bederen fidagarririk (gure ustez), ez dugu ikusten. Badira bai euskal hitz parrasta baten musurka-lanak hantxe hementxe batzuk eta bestek itzulikaturik, metodo edo noranolaketa arbitrarioz ahalginik... maizenik latin-erromaniko mundutiko maileguak ginuzkeela, Madrildar hitzkuntzalari zoinbaiten arabera gure hiztegiaren ehundik larhogoia, eta holako.

Edo, Manuel Agud eta Antonio Tovarren lanak (**A**-tik **O**rloi-eraino) *Diccionario etimológico vasco*, deitzen dutenak, argibide gutti dakarkigu. A. Meillet-ek bazeukan aintzineko A. Walde-en *Lateinisches etymologisches Wörterbuch*, P. Chantraine-ek Hjalmar Frisk-en *Griechisches etymologisches Wörterbuch*, eredutzat. Nahiz, A. Meillet Konparatismoaren sorzailearen ikasle izan biak, P. Chantraine eta Emile Benvéniste-ek, erakasle ospetsuaren metodoak hobetu zituzten; guk ahalegin dugu hiru horien noranolaketen edo metodoen arabera jokatzeko euskerarekin.

Horiek beren gaiaz aurkitu aintzinekoen parekorik, euskerari buruz, ez dugu aurkitu. Koldo Mixelenaren *Fonética histórica vasca*, lan handia egiazki, baliagarri zauku jakina, erdal formekin euskal formen erantzukidetzen parekatzeko, bainan “*bemol*” baten bat edo beste goiti-beheiti : BELATER (cod. Callixt.) “aphaiz” greko-latin *presbyter*-tik elkierazten du Mixelenak, bi hitzek atzhitzki /-**ter**/ daukatelarik berdina bakarrik. Erkaketarako metodo hortaz zer pentsa? Indietako Sanskrit-eran badugularik **beratêr** “sacerdote”. Halaber, LAINHURU/Zub. Leñürü, leiñü, Lhande-k itzultzen du “raza, generacion, tribu... “ aldiz Azkuek (I,539) LEINHURU “rayo, fulgor, brillo”. *Leinu ta leinhuru* bi formak nahasten ditu Lhandek, fr. **lignée** << lat.*linea*”liho hari piru”-tik elkiz gure hitza, Mixelenak ber-gisan, gainerat euskal fonetikako elots aldaketen adibide bezala aurkeztuz lat. *lin-* dik euskerak *lein* degiela...

Bego, zaldirik hoberenak ere ez tul zoinbait. Gehitu behar da, lehenagotik nahasketa izan ahal zela mintza zaleetan *leinu* “senidetza” / *laino-laiño* “niebla”, formak ia eitez iduriak izanez. Denaden, LAIÑ-HURU bi hitz elgartuzkoa da : LAIÑO “alfore, lanbro : niebla”+ **HURU** “eguzkia”, ikus Zub. ZOHARDI “argitsu”, eta avést. **HURO** “eguzki”, [Jaun hunen izenatarik bat, eusk. ELUZKI <<< \**welios eki*,[gr. *hêlios*],= “(eki)begi itzulikari”<<< i.-e. erro\**Wol*-/\**Wel*-”itz-**UL**”(cf.bi-**HUR**, **GUR**-pil, ma-**KULL**...)]

Nundik eta nolaz dugun **tabu** bat : euskera ezin delako erkatu indo-europar hitzkuntzekin ? Bi erantzun nagusi

- 1-Indo-europar inbadizale konkistadore garhait-gaitzen ipuia, ehun bat hitzkuntz elgarren senideen ustezko arbaso ospetsuak, euskera ta Euskaldunak ezik... denak menperatu eta itzalerazi zituztenen ipuia...
- 2-Ikerzaleen atzerakoikeria (hemen eta atzerrian): hizkuntzalaritza orokorrari, eta batez ere indo-europar hizkuntzei buruz iker-lanak beti aurreratuz ibili ta ibiltzen dira... Bainan iduri luke euskerari buruzko ikerlariak ordularia XIX. mendean kokaturik daukatela. Adibidez eusk. TXAKUR formari bere eite zerbait lukeen forma baten bila Korear-eran edo Ketxua-eran, Uralo-Altaik-eretan, edo ez dakit nun ibiltzea antzakeria hutsa da XX.ren amaieran, badugularik ARTZAN-**HOR**, IHIZ-**HOR**, **HOR**-ÜZKÜ... edo halaber, beste ustekeri hau : sintaxi ergatiboa, (gure “berezitasuna” omen litaikeena), erdarek ez dutela nehoiz ukan, Unibertsitatean entzuten den bezala... txundigarri da “linguistak” direlako ustea dutenen ahotik, gaur badakigularik indo-europar hizkuntzen sintaxiaren oinarria ERGATIBOA izan dela (Claude Tschecof *Aux fondements de la syntaxe l’ergatif*).

## **b) Indo-europar kondaira**

1786an ingeles Sir William Jones Calcuttan auzitegi goreneko epaileak, hiru urtez Indietako Sanskrit-erazko K. aurreko IV. eta VI.-mendeetako testuak ikertuz, ohartu zen mintzaira urrungo hura greziera eta latinerarkin senide zela “*greziera baino osoagoa, latinera baino aberatsagoa [...] bi horien bai hitz-erroetan eta bai gramatika formetan ahaidetza tinkiegia baitu zorizkoa izaiteko*“. Gotik-era ta keltik-era ere nabari zitzaizkon senidetza bereko zitaizkeela. Geroztik ikerzaleek ehun eta zoinbait mintzaira, senidetza berekoak denak, baietsi dituzte, batzu bizi, beste batzu itzaliak, testuak deszifragarriak utzirik: latin-guneko, greziera, eslabierak, baltikerak, germanikerak, keltikerak, kurduera, Afganistango mintzaira, armeniera eta albaniera XX.-enean, berrikiago Anatoliako hittitera, Asiako bi tokhar-erak...

Alde batetik Europako eta Asiako senide taldeen artean kokatzen diren semitiko, turko eta garaitiko jendeak beren mintzairekin, Hungaroak eta Finlandiarrak Europarat bezala, garai historikotan etorriak zirela jakinik, bestaldetik, Persi-Greko-Erromano inperioen kondairako hedadurak gogoan, ikerlariak gisa bereko gertakizuna izan dela usteko edo asmatuko dute hizkuntz indo-europarren bai senidetzaren, bai hedadura geografikoen adigarritzeko...

Ikerlari jakintsunak hiru mende laurdenez Aleman eta Eskandinabiarrak izanen dira. Harro ere seindi baitira : ordu arte, jende horiek beren "barbarotasunaz" ahalge baitzuden greko-latin historia-kultura ospetsuen parean : Franko, Vizigoth, Ostrogoth, Vandalok eta beste zoinbait biligarro, denak Germandarrak eta barbaro denak... orai aldiz ikustean haiek ere mundu horrekin senide zirela, osoki harro! Orhoituko baiditazke inperio erromanoa airez-aire itzulipurdikatu eta "ordaindu"zutenak Germandarrak zirela... ere, Europako aristokrazia militarra formatuz, etabar luze bat.



Sir William Jones

Frantses diplomata batek, Comte Arthur de Gobineau-k plazaratzen du *Essai sur l'inégalité des races humaines* (1853-1855) liburua. Hortan diolarik jendail gudari giza-goiti bat, jitez aitorseme, beste jendeen nausigorako sortua, Frantziako Iphar-Eki, Belgika ta Ingalater zati batean bereziki kokagune duena gar... Ikusten da hemen XIX.-eko Germandar mintzalarizaleen iritzi inguru-giroa : Indo-europar hizkuntzen senidetasuna (UR-SPRACH) aintzinako jendail azkar, handi, heroiko (UR-VOLK) baten etorrerak, bazterrak oro Islandiatik eta Malagatik Birmaniako zedarritarainoko herrialdeak menperatu eta zibilizatu zituen bat, herresto ohargarri zoinbaitez bideak eta milenioak markatuz : Erroma, Grezia, Iran-Persia, Indietako zibilizazio eta poema epiko gogo-hangarriez Kondaira izenpetu zutenak NOR ote ziren ? Allemanen arbasoak. Eta bai ! Hots Bibliako Erromantismoaren pareko zerbait, zientifikoen ikuspegia ere (eta nola ez ?) baldintzaten duena.

A. Meillet jaunak dio, oximor-aren beldurrik gabe, « *des petits groupes de chefs* » ; mintzairaz hauxe dio : « *Tous les mots ne sont pas de même niveau ; il y a des mots « nobles » et des mots « roturiers ».* Les mots qui désignaient les idées les plus générales (*morî, uiuere, esse, bibere...pater, mâter,frâter...equus, ouis, sÛs...*), *représentent le vocabulaire de l'aristocratie indo-européenne qui s'est étendu dans tout le domaine [...]*La valeur abstraite des mots, liée au caractère aristocratique de la langue, est un trait essentiel du vocabulaire indo-européen ». Beraz, ardia, urdea, edan, beriotza, bizia... gauza abstraktoak omen : *lingua, ôs* « ahoa », *liên* « giela »... « **populaires** », aditu behar baita jende apalaren hiztegiko direla. Ikus eta sinets, Jakintsu ospetsu bat da mintzo, *Dictionnaire étymologique de la langue latiné*,1932.-eko hitz-aurreko IX.-orr.

Arkeologoak jokoan sartuko dira, Lituandar Marija GIMBUTAS bat, besteak beste : K. aurreko IV. eta III. Milurteetan, Konkistadore aitorseme batzuren haztarnak omen (*kurgan* hilerriak lekuko), Itsas Beltz aldetik batzuren arabera, Iphar goretetik omen beste batzuk ziotenez (UR-HEIMAT beren « sorlekutik »), hiru uhain-etorreraz, zaldi-karro eta zaldizkoen laguntzaz eta gizarte erakundetza zorrotzari esker, menperatuko zuten horiek Europa osoa eta Asia parte handi bat, EZIK... Euskaldunak eta euskera ! hemen proba bakarra ez da arkeologiakoa bainan euskeraren « berezitasuna edo exotismoa ». Aipatu ditugun mintzalari ospetsu horiek denek (A.Meillet, P. Chantraine, E. Benvéniste eta beste guziet), historizaleak barne, orok dudarik ez zuten, eta oraikoez ere ez, ipui hori dena EGIA dela.

Bakarrik hara, hemen ere bemol bat : K. aurreko IV. eta III. milurteetan zaldia ez zen oraino hezia : lehen zaldi buztartu ta karroak II. milurte-hasieran dira lekukostatuak, zaldizko gudariak aldiz II.-aren amaieran, eta segur, azken milurtean.

Garai haietako nekazaritzak ezin luke nehola jendaila gudari ta urrun bidalari talde baten hazteko ahalik. Gizarte erakundetza herrunkaturikoa (militar aintzindari, aphaiz, metalgintzalari) leku eta garai haietan ezin zen izan omen (Kronologia arazoño bat). Azkenean Marija Gimbutas-en “kurgan”delakoek ez lukete uste izan den bezalako lekukotasun baliorik, adituen arabera. Hargatik, untsa dakiguna hauxe : Europako zelaiak, Alsaziatik Ukrainean barna K. aurreko azken milurtean jende nekazariz beteak direla ; klima aldaketa bat agitzen dela, uka ezina, aroa hotzagotzen, eurite eta uholde... Iphar-aldeko jendeak zinhurriak bezala higika hego-alderuntz, eta armaturik... Hegoan inperio militarrek... liskarrak, borrokak... ordukotz Latin, German, Eslabo, Kelto... beren hizkuntzekin lekukostatuak dira idazle-historilari greko ta latinoek bermaturk.

Berriki, 2014an Paule de MOULE historilariak plazaratu liburuak (*Mais où sont passés les Indo-Européens?*), argi eta garbi salatzen du dena dela mito bat !!! Gisa berean, Shlomo Sand israeldar historilariaren ganik dakigun erarat : Bibliako « istorio » gehienak ipui-mito hutsa diren bezala, Germandarren jator-ipuia **mito** galant bat dugu. Arren, indoeuropar hizkuntzen senidetza NUNDIK ? eta NOIZ ? Ipuiak utzirik hobeko dugu euskal mintzairaren ikertzerat jo ; euskera ez baita mitoa, edo «**lilaikoen**» zerbait, bainan bizi «**danikdana**».

### **c) Erroaren teoria (E. Benevéniste, ) 1935 -*Dictionnaire de linguistique LAROUSSE, 2005***

**Erroa** da, hizkuntz bateko, edo, hizkuntz famili bateko hitzen gai oinarria, hezurra, laburtuagotu- ezina, eta, hitzaren familiako hizkide guziet daukatena. Erroa eite edo gogo huts bat da, abstrakzio bat, gauzatzen dena era edo itxura ezberdinetan. Hitzetik kenduz isats mota oro ( aurhitzki, atzhitzki, barhitzki, deklin-isats, aditz-isats...) da erroa argiratzen. Oroz lehen, hitz bi edo gehiago hitzez eraikirik denez ohartu behar da, zeren elgarkide bakotzak bere erroa baidu : *txaranga, txakur, zaraitz, iriatz, gaztigar*, hitz bakoitza bi izenekilan da. Bestalde, elgarturiko hitzak izan ditaizke eraldatuak eraikuntza batetik beste baterat : *txaranga* ta *karranka, zaunka, xainga, txirringa, kurrinka, zinka* ... errangura ezberdineko hitzak izana gatik, “erro” berezko dira, ta gisa berean elgarri datxikolatuak ; eta zer erranik ez, erro horiez berez eraiki erdal hitzez ! : KAR- >>>“ lat. *quiritô/* gazt. *gritar/* ingel. to *craye*”+ A NGA “meheluze (lat. *anguis* /lit. *angis*” ziroina : serpiente“).

Euskal hitzen erroen bila abiatzean beharko da aztergaiko forma, maiz, lehenik “ideki” edo puskatu (dislokatu). Hortarako euskera untsa jabetu behar. Koxka hemen izkutu-ezina : ikerlari asko (baskologoak), arrotzak ziren alde batetik, eta guhaur, ondikotz ! arrotzuak guhaur

hizkuntzan... Gaineratzen bada noranolaketa edo metodo ezegokiz ari deno ikerlaria, eta, aurriritzi mitikoen menpean dagoeno, euskeraren senide diren erderak ikerlanetik baztertuz, itsumandoka buruberotzen jarraikiko dugu.

Adibidez, eusk. EDER edo BUZTAN zertaz eraikirik diren, nik hasteko ez nuen sekulan aurkituko grezieraren gainean beste batzuk egin lanen laguntza erabakiorra gabe. Euskera erdal senidetzakoa dela aitortzeak, ez gaitu ez euskera ez gu banalizatzen (hori balitz gure sabeleko mina), aitzitik ! badakigularik egungo Europear jendeen "genoma"-ren %75-80 duela -15.000, – 20.000 –ko (karrointe aroak) "*euskal genoma*"dela, Ingeles-Aleman ikerlarien bizi-ikertzaeren arabera. Burgoitzeko tentaziorik bagindu, orhoit Ostrogoth- Vandalok eta beste, Ameriketako Indio jendaileen suntsizale, Nazi *shoa*-zaleak barne, senide garela : bizi-jatorriz, bai eta hizkuntz jatorriz...

**Unkhu** (radical) deitzen da erroak hartzen duen forma elabide ezberdinetan : KAR->>>*kurle* / lat. *grûs*, eusk. *kurrulla* / lat. *grillus*, eusk. *garruma*/ lat. *carmen*, eusk. *garrasi*, *garima*, *galarrots*, *galde*/lat. *calâre*, gr. *kalein* ..... lat. *coruus*, gr. *korax* "bele", gr. *krazein* "gritar"... ; ANG- a >>>(xar)INGa (Ester. GARAZI) "chillido", (xir)INGa "flautilla, jeringa"; zINKurina / lat. *canere*, *canis*, gr. *kuôn*, gr. *salpinx*, *surinx*..... Ikus, adibidez, eusk. ANTZU <<< ANGA + \*IZ- aditzlagun (auxiliar)+ U lemazalea, ANTZU <<<\*ANGZU / lat. *Angô* "hertsatu : estrechar">>>*anxi* "hertsatu dut". (\*Ang- )erro beretik TINK-I, TINKATU ! lekuko cf gall. *yng* eta *cyf-yng* "mehar : estrecho" (Meillet,33), bokal ta konsonanteen fandangoa goiti-beheiti.

Fr. "venir"-en erro *ven*-ek bi unkh badauzka *ven-* eta *vien-*, bideratuko direnak elaraudi isatsak datxikolatuz *venons*, *venue*, *venait*, *vient*, *vienne* ; chanter-eren erro *chant-* ek bi unkhu ere, *chan-tait*, *chant-re*, *cant-atrice*, *cant-ilène*.

Berehala ager da unkhuaaren avatar –ak nolakoak izan ditaizkeen. Bai eta ere euskera indo-europear mundukoa dela . Zeren, arabe, hebrear edo vietnamdar erro ta unkhua ez baitira nehola ere euskal eta indo-europear munduan sartzen, aldiz hortxetako adibide horiek berek erakusten dutelarik euskal eta erdaren arteko jostura zehatza.

**E. Benvéniste-en teoria:** *Origines de la formation des mots en indo-européen*, 146-173. Orr. CHAP. IX, *Esquisse d'une théorie de la racine*.

1)-Erroak hiru elhots edo fonema dauzka, hiru hizki edo letra / konsonante(otskide) + bokal (ahoski) +konsonante, K.O.K.

2) Erro hori agertzen da bi (batzutan hiru) « gradotan », a) osorik K.O.K. grado betea ( L I); b) tinkaturik K.K. grado lehertua (L II); c) grado bihurtua (L III) . –

**Lema I (L I)** = KAR, GALde, GARrasi, CARmen, CORuus... HEROTS = gr. *kêrux*, skr. karuke "heraldo"...; Euskerak eta naski Myzenierak lema I, osoa dute gutiz-gehienetan, eta euskerak biziki guti beste lemekilako hiitzik

**Lema II (L II)** tinkatua = eusk. = naski zero KAR- en familian ; lat. *gloria*, *clarus*, *grundîre*, *grus*, *grillus*, gr. *klaiein* "negar egin"...

**Lema III (L III)**, arras bekana : eusk. **LAGATU** (L I)// gr *leipô* "abandonar" eta *leibô* "ixuri xortaka"(biak erro beretikoak)(L I) ; eusk. maiLEG-U /leloipa "lagatu dut"(L II) ; eusk. **LIPitz** "gota"(L III), abizena Xi**LIB**olost= gr. *dialiberos*//gr. aorist *é-lip-e*, **lips** "tipitz/lipit : gota"(L III). Eusk. ZAPAL- (L I) ta ZAPLAZT- 'L II) ; eusk. **KALTE** (L I) = lat. *clades* (L II)

3) Lema bat ez delarik agertzen hizkuntzako hitz famili batean, guziz L I eta L II –tariko bat delarik itsu, bilatu behar da azter-gai den hizkuntzan ez ote legokeen, itzalkaturik edo mozorroturik familian berean, edo alboko famili batean, jakinean egonez mintzairak sinbolozale bikainak direla : badakigu, adibidez, gauazko aments baten salatu-nahia ezin dela ulertu amentseko ipuia irakurritz aurreratzen duen antzerkia egiazko egitzat hartuz, beti da parabola bat... halaber mintzairarekin ainitz-askitan. Azter-gai den mintzairan delako lema hutsik balinbada, kanporat jo behar da : norat ? Indo-eurpear erderetarat ez bairik gabe .

Lan bikainak badira oraikoz aditu taldeek haietan eginik, josirik-presteko jantzi frango elkiko da. Bai eta ere ohartuko gira aditu ospetsuenek, berek idatziriko petto batzuetarik, zer duten galdu euskera zokoan utziz !

Latin *gradus* “zubi-pala“, *grandis* “handi“, L II –ekoak, besterik gabe : *gradus* (L II)= GARATU(L I, *grandis* (L II)= GARAIEN-DI (L I)/ GEIHENDI/ GAINDI <<< KARA orai “BURUA“, cf. **GAR**koola, **GAR**auna, **GAR**ondo //gr. *kharâ* “cabeza“.

4) Erroak bere **bokalak** aldizkatzen ditu : GAR-A >>> GOR-A//lat. *collis*, GEReinño//lat. *cellô*, GIRi, GURin ; SAKu “corte“, auSEKi/ ausSIKi / lat. *secâre*, fr. *incisive* .



*Emile Benveniste, ikerlari estrukturalista*

5) Erroak konsonanteak aldizkatzen ditu : **XERRA** “tajada“/ gr. *keirô* “ebaki“, >>>aor. *Ekerxa* « EGURTZE » (Erronk., Aezk.), EGUR//gr. *kouros* “suko ebaki egurra“, gr. *kreas* ta lat. *caro* “tajada de carne“/ **HARAGI** “tajada de carne“. SAK- errotik >>>\*SAKSI (sak-iz-) SASI // lat. *saxî* “ebaki dut“, ZITZI “tajada de carne“//skr. *sitsi* “**tajada de carne**“.

6) Erroa azal daiteke **afereza** (hasierako elhoskia gabe)-rekin : MAKUL-U <<<HAMUKUL-u ; eta hori ez askiz **haplologia jokoekin** (elhotski bat edo gehiago galdurik hitz-erakuntzan) : TXAKUR <<< ETXEKO- HOR. Eusk. HEM-BOR >>> isl. *Timbr*, All. *Zimmer*-. Edo eusk.

7) Erroa batzutan lupertzen da hitz-erakuntzarako gaien kopurua luzatzean : lat. *nouâcula* “aiztua, bizar -nabela“<<<\**kês*-/\* *ks-nouare* –*cula*, hizkuntzalariak (Meillet, 446) ausartzen dira gr. *xuron*, skr. *ksurâh* “navaja de afeitari“-tik abiatuz latinak \*Ks- bat lupuru zukeela asmatzerat. Cf. eusk. **GEZTERA/EZTERA** >>>lat. *castrum*, hemen atzizkiak erakusten du L II

*Erran behar da formaren hertsaketa hori erderek erroaz bestelako fometan ere sistematizatu dutela. Hortarik dator parte hun batean EUSKERA-ERDERAK erkatzerakoan arazoetako garrantzitsu bat: formak mozorroturik heldu zauzku : era zehatzenetarik abiatuz, huna adibide zoinbait - GILTZ “llave“(L I)// gr. *kleîs* “giltza“(L II) // eusk. begi KLIS-KA “parpadeo“(L II) <<< erroa \*KAL- “jo“(KALITU) (L I)eta “hautsi“<<<KLASKATU (L II) //gr. *klaô* “jo“(L II)>>> aor. *Éklasa* (L II) “klaskatu dut“, *kalon* (L I)” sugaia, egur“.*



Guzi hunek zer luke GILTZ-ekin ikusteko ? Soroetako langak **SEIL / SEHEIL** edo **KEHETA** “portico, barrera” batez hesten dira, hetsgailua delarik zaraitz bihurtzeko bilur bat, hunen begitean iragaiten baita **Y** fomako ziri matxarde bat, bazterreko arbasta edo zuhaitz adar bat klaskatuz eginikoa. Gero, begite eta matxarde delakoak hobeki landu dira, lehenik zurez, eta gero metalkiz, etxeetako GILTZ-en egiteko : cf. gr. **kleis** “barra, cerrojo ((Hom.), llave =clavicula”; myzen. **Karawiporo**(L I) “giltzaina“(L I) = gr.**klawiphoros**(L II) >>>**kleiô**(L II) “cerrar, cerrojar“, **kleistos** (L II)“hetsi”= KLISKA-(L II). Ikus daiteke hizkuntzak nola “**hautsi**“, ideiatik “**hetsi**”ideiarat bide egin duen : hitzak eta mintzairak olerki garbi dira, gizadiak hunkikoro gogo-huts antzaldarazten du, ia izadiak marmutz itsusi batetik “**altxalil**” (pitxeleta = arima / gr. psukhê) degien bezala.

Hemendik aintzina begi berriz begiratzen ahalko diegu euskal eta erdal hitz eta hitz-egiturari, ohartuko ere baigira elgarrekilako erantzukidetzek araudi tinko (lege) batzueri jarraitzen direla. Tinkza hori ezinezko agitzen denean, hobe hitzaren erkaketa-lana, behingoz, utzirik, ikerketaren fortunak argi berri bat pitzerez arte. Nahiz batzutan milurteen bilakaerak eragin mozorroketak hain diren asma-gaitz, halere, maiz ezustean, formaren ber-erakuntza heldu da aurrerat, goragoko adibideak berme.

#### **d) Euskeraren azalketa (deskripzioa): hitzen egitura**

Hizkuntzetan, euskera barne, aho-mihitan eta idazkietan eguneroko hitz frangoren eraikuntza zertaz ta nola hortaratua den, jendeak, bai eta batzutan gramatikazaleek berek, oker ulerturik, edo baterez ulerturik dira. Platon (IV. K. aur) filosofoak **Dionusos** jainko izena, “**arno** (oinos) **emaile** (doter)” bezala aditzen zuen; Latinoek **cadaver** asmatzen zuten” hilhotz” **ca**(ro) **da**(ta) **ver**(mibus) “**zizarieri eman haragi**” bezala. Erdi-Aroan hizkuntza oro Hebre-eratik zetozela uste zen; XVIIlean Frantsesera Hebreeratik zetorrela adierazgarritzen zen... Ménage jaunak, frantsera latinetik eta latina hebreeratik zela erakutsiz hitz jatortza zuzen frango aurkitu omen zuen. Gaur-egun, hitz-jatortza edo etimologia iker-arau bat da, hitzen bilakaera ahalik eta iraganean goren bilatzen duena, aniztan, ikertzen den hizkuntza baino haratago helduz, “etymon” deitu forma bakuna aurkitu arte (ustez bederen).

#### **1º- hitz izkutuak.**

Osoki eto zati bat itzaliriko erak baitugu, eta hizkuntza denetan badira : Lat. **nouacula** “bizar-nabela”<<<\***kês-** “ aitz “+\***nouâre** “karrakutzen, zarrasten“+ (tresna atzizki) –**culum** ; “ verbe \***nouâre**, qui aurait disparu par suite de son homonymie avec le denominatif **nouus** “(Meillet, 446). Eta hara nola ber-irakur edo eidetu daitekeen eusk. **AUSNAR**, **HAUSNAUR** “rumia”(Azk.,I, 110 ). bestalde badugularik **NAHAR / LAHAR** “zarza“/LARRAZ-TU “desollar”... Berdin ere eusk. **BIZAR** (BI-ZAR) nola eraikirik den = “zarrastu beharrekoa“. Skr. **ksurâh**, gr. xeroz “bizar-nabela“, era hauetan agi baita delako \***kês-** “aitz” erroa” halaber eusk. **GEZTERA** (Azk.I,334) “aguzadera, piedra rotativa de afilar“; hortik ondoriozta dezakegu Oraiko **ZARRASTA-** noizbaiteko \***KZARRAST-** bezalako zerbaitetarik ginukeela.

Berdin ere Azk.I, 304 orr., **EZTERA** 1º « piedra de alfiler », 2º(BN-Muger ) acequias profundas à donde llega el agua en pleamar»; zantzu hunek geramaz lat. **castrum** –erat “ atrincheramiento, lugar forificado“, Meillet,104 “ Il semble avoir désigné d’abord une propriété gadée ou retranchée“. Jakina ! eusk. **GAZTELU**, **kastillo** erromanikotik datorke, hargatik erromaniko formen jatortzak gaur-egungo gure formek argi dezazkete... Hau ez da zernahi ! Bidenabar, ikus hitzen erantzukidetzen legeak (fonetikakoak) nola argitaratzen diren .

**BEDI, BEGO, BERRA** (“dakienak berra” Atxular), **HALABIZ** “hala izan bedi”, beraz aditza, 3. personan bakarrik agertzen dena euskeraz eta aginte bezala aditua, erdaretan ere aginte zantzuana ta ez beti 3. personan bakarrik ; **BE, BI**, ingel. to **be**, lit. **būvo** “zen : estaba”, lat. **amābam** <<<amāre-**bam** = maitari izan nintzan, behar nintzan, hots, iraganeko etorrera = “maite nuen” gaurko adieran . Ikus eusk. **BEUDE** <<< **BE-EGO(n)DE, BETOZ, BIHOA, BIZAR, BILAKATU, BEHAR, BEDAR** “helduko dena: zulain : planta”, **PITO** “sorterazle”, **BEHOR** “erditzear”, **GARBI** “ **clarus :claro** : entzungarri (**garrasi,karranka**)”, lat. **carbo** “ikatz = gar eginen duena “ (Meillet,99 “ v. isl. *hyrr* “feu“..... mais le *-b—n*’est pas expliqué“), akitan. **SEMBE** “seme“<<< “sein –be”=jinen/xein, sortuko dena”....cf. *seinmin, senide, senhar, seinga*, lat. *Senex* (itsu utzia Meillet-ek,613), *zezen, egunsenti*....;

**LUKE, LEIKE, LADIEN, LEIDIN**.... –ko /L-/ ez da ere 3. Personako izenordea, baina aditz laguntzale bat balizka-ko gogoaren salatari : **LEHI** “**NAHI**” dioena // gr. *lô, leïs, leĩ* “deseo, deseas, desea... <<< erro \**Wol-*, \**Wel-* “itzul“-tik. Cf. ingel. *will, shaul* aditz-laguntzaileak erabilera bertsuari direnak (etorrerarako). Gainera dezagun gure atzizki erabilera oparoko **-LE, edale, egile, jale, pixile**.... “Gura” adierazteko. **LUKE-k** = lehi-uk-ke, uk = **UKAN/EDUKI**. Oyhenart, XVII. “**BU** (be-uk) gloria Jainkoak zeruetan”. Edo “Erran genion gortereski gaur bara **leidin** gurekin”. (Arhantzuzeko bortü Gañan) **LEIDIN** <<< \*lehi-izan-di-an = lehi- (i)zadien, /Z-/ 3. pers. izenorde iraganean “el“, “ella“, /-A-/ “are,da(r) girare, dirare, =“ser, estar“. I.-e.-eran bai ta euskeran izaitzeko hiru era badira : **IZ-**, **BE, AR-/OR-**, cf. **AIT-OR** // lat. fateor” konfesatzen” ; (H)EROR (I) “lurrerat izan : caer, (H)ER-I “enfermo“, (H)ERI(H)OTZ “muerte“, etabar. Latinean *am-or, am-ari* “maitatua izan“, *am-are, cap-ere, uol-are* = “maitatzeAR, hegaldatzeAR... Bilakaera osoki luzearen ondorioz dirateke hizkuntzan holako asko forma. Ber-eraikuntza sakon baten beharrea gaude.

## 2) Aurrezki, atzizki-dun hitzak :

- **Aurrezkitu** formarik irakasten da (Baionan) euskerak ez lukeela (“Dérivation exclusivement suffixale“) . Baina harren **AUR-KEZTU, AR-BASO, HUR-BILDU, E-ZA-GUN** //got. *kann*, lat. *gnoscô* : “conocer“, /E-/ (haratago ikus) /ZA- (gr. *za*<<<dia) //diagnostico ; **ZI-R-URIKA, ZI-R-RISTA, ZI-RIN** “diarrhea“, **ZA-BALTZA, ZA-PATU, EN-BATA, AUR-PEGI** // gr.*pros-opon*, ; **BURUZ-AGI** =aintzindari, aurrean **AGI-tzen** dena, **AGIN-taria** // gr. *pros-agein*, Skr. *puro gâva*, hittiteran *piru ga* = AINTZINDARI : jefe. Tiro bakar zenbat urtzo !

1- **BUR-U** orai “kasko: cabeza, eta ere ,”muturra” (bidearena, lanarena...) adibidez **BURUTZEN** (L I)//gr. *prassô, prattein* (L II) “muturreraino eraman hasitakoa“, gr. *epraksa* “burutu izana“, *praksis* “praktika, burukatzen“... erants dezagun /k/ hori zer den grezieran ez dela garbitua, “La gutturale finale doit connoter l’aboutissement du procès” (Schwyzer, I,702 Gr. Gr.) Chtr.935. Beraz, **BURU-k** noizbait **AUR, AINTZIN, zioen**; eta agertzen da sarreran konsonante batekin ta barnean bokal bat galdurik : All. *ursprache* “aurreko hizkuntza“, *urvolk* “aurreko populua“, *ur heimat* “aurreko kokagunea“; *ur- indogermanisch* “ aurreko indo-europarrak...

2.-**AUR-, AR-,UR-, ERE** (erosi //gr. *priasthai* “\*EROS-TU“, eretzi, erkatu), **IR--** (iri // gr. *peri*), **POR-** ( bur-u, burrusta, turrusta //gr. *wrustos* “xurtzen“), **PAR-**(parra), **BER-** (berriz, berdin)..... Irl. ar, baina hasierako konsonantearekin Greko-latinerekin : **per, por, prae, pro, pri** (prim-, prineps, promo), etabar. Dena da barrika beretikoa. Beste aurrezkiak bada; **OS-KOL, US-PEL, AS-PALDI, AZ-KAR?** **HOB-ORO, OP-IL** (HOP-BI)//ingel .*apple*, gazt. *Avellano* ; **GOSE** (GO-ASE) = ase ez dena...

3- lat. *agere*/ gr. *agein*/eusk.AGIN-DU « ereman : conducir » hitzek jatortza lukete, antzaz, GAN/JUAN bainan aurrezki /A-/ batekin AGITU-k daukana « acontecer ».

**-Atzizkiek** ere euskeran lanik aski badute islatuak izaiteko. Armenitar baskologo batek (Web-en) dio metalkien euskal izenez, ainitzek BURDIN/BURNI + margo izena daukatela: *burdin zuri* “zingoa”, *burdin hori* “bronzea”, *burdin urdin* “kobrea”.... Untsa ulertu badut: gure oraiko lur-aldeetan burdin mehatzegi asko izanik, eta burdin-lana Europan K.-A . 600-700 urte hirietan bakarrik hasi izanik, gure arbasoek lehenago ez zuketzen jakinen metalgintzan. CNRSeko ikerlari talde batek, Arroza(BN)tar Garazi Beyris anderea buru, Urepelen (BN) aurkitu dute, orai duela 20-en bat urte, metal elkitzeko labe bat K.-A. 3.000urtekoa.

Gure “baskologoak” BURDIN/BURRUN/BURNI hitzaren idekitzen ahalgin balu, idazten hasi gabe, eskuak erre gabe egonen zen... Atzhitzki /-DIN / errexa da zilatzen (ber-din, ur-din, buz-tin), joiten duen gaitetik zerbait eduki badaukala ; -ON /-UN (*pikun, papun, Ibaiaion*)<<< DUN <<<D-U(K)-AN ; BURNI <<<\*BURRUN-I “burdindua” beharba. Eta BUR- “zer?”MURRA bada “brasa ardiente”, (Azk.), sua MUR-MUR (BN)= garrik gabe edo gar guttirekin dohan sua; BUR-BUR-BUR (Erronkari, Garazi)“onomat. De la ebulicion fuerte“ Azk. I, 184. HURBURU ( Ester. ) “Iturri burbulokari” baten izena, Auvergne-eko(Fr.) BOURBOULE hiriak mainagieta badu, iturri burbuilkaritik. Beraz, gure BURRUNek diona da suarekilako zerbait baduela, METALKia du errangura. Meillet-ek lat. *ferrum* « burrun » hitzaz « l’origine de *ferrum* est obscure ; on sait que le « fer » n’était pas connu dans le monde indo-européen [.....] accadien *parzillu*, phénicien *barzel*, ce qui ne fournit rien de net ». Alta Meillet-ek bazeuzkan lat. *ferueô* « erakitu, burburikatu », arm. *arbewr* « iturri », irl. z. *topur* « iturri », got. *brinnan* « erre », Meillet-k dio « plus loin pour le sens »230 orr. Hauen guzien parrean : gr. *pur*, hitt. *pahhur*, arm. *hur* « sua », gr. *purakteô* « suaz idorrerazi » = ABARRIKATU = KIZKOR-ERAZI(tabu su-aurrean, larruak eguzkian... eta bigarrenkari zantzua : « ele gaixtoz norbait erasotu ». ABAR, GAR, BARzillu, PAHHUR alBEWUR >>>PUR...forma ber baten avatar-ak ditugu, sorginkeri zoinbait gora-behera .

Begira beste huni : **MURGILDU**“ columpio“, asmatuko da berehala lat. *mergere, mergulus* “(hurerat) jauzgia“, Mellet-ek \**mezg-* errotikan litaikela, zeren skr. *màjjati* “murgiltzen da“, lit. *mazgoti* “ikuzten“. Iduriz, norbaitek edo zerbaitek hurerat juzitean, burbuilloak hurean **egiten** dira, horren egilea >>>\**murgile* >>> aditz denominatbo edo izenetikoa **MURGILDU**. Balitaike hameka ta bat beste adibide

**-Biderkatu** formak, ZEZEN, KOKORIKA-, ZIZARI, MARMUTZ, KASKAIL-, LILIRIKA, KIZKORTU ? DARDAR //lat. *febris*« sukarra » Meillet,222 “ la forme originelle serait de type à redoublement : \* *dhe-dhrî*“. Badugu DIR-DIR / DISTIR >>> skr. *distria* “Sirius, Constelacion del perro“, gr. *aster* = IZAR : *astro, estrella*“, PAPO/GOGO... aberasgarri dira erdal era berekoekin erkatzeko, salatzen daukutelakotz, zalantzarik gabe elaraudi-kideak, maiz berdinak, baditugula.

Era horietarik zoinbait **onomatopeiak** dira zehazki : **DER-DER** (DIR-DIR / DISTIR) hotz-ikaraz hortzak dantzatzearen salatari, >>> lat.*febris* “sukarra“, lat. *querquerus* “hotz-ikara : escalofrio“, gr. *karkairô* “hotz-ikara“// eusk. hotzez KASKARAN ; iturri beretik dugu DIR-DIRA/DISTIRA “centelleo, brillo“, haatik goithitez edo metaforoz ; gizadiaren jeinu berezia izanez sinbolozale girela, hizkuntza delarik sinbolo egituraketa bat : denikdana edo errealitatea galerazten dugu ahots joko batez, begitan ez dena beharrez gogoeraziz, hortakotz hoinbeste onomatope hitz-famili ainitzen sormarka ; hur higikarian iruzkiaren edo ilargiaren argia kliskari da, bai eta gauaz zeruko izarrak, ta hortik gr. *astêr*, indo-iran. *stâr*, lat. *stêlla*... “izar”<<<\*DIZTIR –tik .

Meillet 646 :”\*ster- et \*stel- serai­ent les noms d’action des racines parallèles signifiant “étendre”, \*ster- >>>lat. *sterno*, et \*stel- >>> v. sl. *stilati* « étendre »[...]lat. *latus* [...] L’idée fondamentale serait celle du groupe d’étoiles semées dans le ciel. Pure hypothèse » .

Aldez-aurretik, izarraren (izarren) eituratik diratekeela elki *sternô* ta *stilati* usteago genuke guk. Besteak aldiz, zalantzarik gabe **aditz bihurtuak** dira, iragan bukatuak edo perfektuak : **ZEZEN-A** « behi aita » // gr. *gegona*, skr. *jajàna* « sorterazi dut », skr. *jàti-*, lat. *nàtiô* « JAIOTza »<<< JIN, JEIN, SEIN (sein « niño, senide..) / lat. *genus*, *generare*, gr. *genos*, skr. *jànas*.

**KOKORIKA** <<<\*KOR-KOR-I-KA, formaren erroa KOR, eta unkhua KOR-I = gaurko euskeraz “UKURTU: encorbar(se), bajar(se) », >>> GOROTZ, gr. *kopros* « gorotz, satza », skr. *sàkrt*, *sakn-àh* « gorotz, zikin », lit.*sikti* « cacàre », Chtr. 563 « on pose donc i.-e. \**kekwr-/\*kekwn-*, \**kokw-r/\*kokwn-*, cf. Benvéniste, *Origines*,9». Hau ezin dela «erro» izan ikusiko da jarrairako atalean.

**LILIRIKA** (BN,Baigorri, Behaskane, Lekunberri, Ainzile...) «bete beterik”Azk. – LH-ek ez dakarte, cf. arm. *li* “lino“, lat. *pleô* “betetzen“, gr. bukatua *péplêka* =“lilirika“, *plêthorikos* (beterik, lepo).

**MARMUTZ** « insecto », hitzak erantzukideak badauzka, lat. *uermis* « lombricilla », « kermes <<< ar.*kirmitz*<<< pers. *Kirm*, lit. *kirmis*, skr. *kermih* = cochinilla del roble », « Mot « populaire », instable, à variations singulières » Meillet, 724 ; gr. *murmêx* « eñurru/zinhurri », « les noms d’insectes qui n’appartiennent pas au fonds noble du voabulaire sont exposés à des variations, où peut intervenir le tabou linguistique...Chtr.723, hots, jatortzarik ez omen. Ausartuz, eskainiko dugu gure iritzia : biderkatuzko formak maiz aditz bihurtuak dira (prozesoburutzeko bukatua, perfektua), *marmutz/uermis/murmêx* erro ber ta bakar batetik elkitzen ditazke \*-IZ (auxiliar) aditz-lagunarekin ; (**MARMU** ta lat. *formidô* « espantajo », bai eta *murmêx*-en bigarren zantzua « buho : animal fantasmático de India : leon), marmuek haurrak JATEN dituzte ! beraz *mar-/ mur-/ uer-* erak parekatuko ditugu lat. *uorare*, gr. *eboron* « irentsi, klikatu, jan », eusk. **PORR-O** « tripa », **BAR-UR** « jatear, jateke), **HAR-ITZ**, **HUR-ITZ**, gr.*bibroskô* (L II)« *jaten* »// eusk. **porroska** (L I)« migaja », **broska** (L II) « migaja ».

**PAPO /GOGO**, oraiko euskeraz izenak dira, baina formaz noizbaiteko aditz eite dute, hargatik ziztukaririk gabe ( ?) **PAPO** « pecho » >>>PAPUN (PAP+ON) « budar oparoko » eta sinboloz/goitizenez « onjo zapelduna », eta fruitu « mardoak ». PAP = HAP- <<<HAPA-HAPA hatsangaren onomatopea, =HATS, ta **PAPO** = hats-gunea « pecho ». **GOGO** deitzen duguna, « izpiritu, arimako harahunat-gune, sendibera-gune », askotan « bihotz » hitzaz ere dioguna, **PAPUAN** dugula iduritzen zauku ; doinutikoki (fonetikaz) P/G egoki, cf. lat. *equus*/gr. *hippos* « zaldi ».

**GOGO** hitzetik dukegu **EGOSI (e-go-s-i, <<<e-gogs-i)** aditza, gure barruko zilimalazko asmuez mintzo girelarik . Hemen ager da eite-huts zantzutik elkirik dugula zantzu hukikorra edo konkretua : *salda, haragia ... egosi*. Parrez lat. *coquô, coxî, coctum, concoctiô* “cocer“; gr. *péssô* “egoserazi, onduerazi“>>>“*papun, ondua*“; skr. *pacati*, esl. z. *peco*; ital-kelt.\**pekw-ô*... Erro i.-e. \**pekw-* Chtr.890.

### 3. Elgartuzko hitzak

Osatuzko hitzak asko dira, ikerlariarentzat biziki jabegarri, zeren beren eraikuntzan iraganeko gramatika edo elaraudi geruzak aurki baiditazke.

-**PITZ** <<<BE/BI + IZ(an), hala BIZ = egungo elaraudian *izan bedi* . >>>*piztu* //lat. *bestia*, gazt. *bicho*, fr. *biche* “*ahuña*”.

-**TXAKUR** <<< etxeko hor, cf. artzan-hor, ihiz-hor, hor-üzkü // gr. *oiko ouros* “etxe zaindari”, skr. *pasus haurva* “artzan-hor”; dena da izen deberbatiboa edo aditzetiko *OHAR* (OK-” begi”+HAR)// gr. *oraô* “begiratu, begian hartu “

-**ZALDI, ZALU** //lat. *celer* “zalu”<<<gr. *kélês* “itsas-untzi lasterkaria” itsas-lapurrena ‘gero « zaldi lasterkari » : beste untzi baten erasotzean, kapitaina oihu-orroaka arraunlarieri, gr. *keleuein*= “abordaje-rako oihuka” **GAL**deka <<<erro KAR- (cf.KARR-ANKA, TXAR-ANGA, GARR-asi, GARR-uma...)

-**GURDI, GURPILLA** <<<gur-tu aditzetik + **BIL**, cf. bi**GUR**, ma**KUR** / ma**KOL**, biderkaturiko HUR-KUL/ KURKUL >>> ukuillu...

-**MAKULL-U**, 1. gai HAMU, 2. gai -GUR-/KUL- erroarekin <<<HAMU-KUL, *hamu-k*, *txakur-ek* bezala “afereza “ badu (hasierako eloskia luperturik), mintzalaritzako beste sorginkeri bat .

-**HAM-U/ HAB-E** “tallo“, HAM-/HAB-” pie : anka”+ atzhitzki –U /-E da eroa “lematzen duena“, lemazalea“, hunek hitza aditz edo izen edo izen-lagun den salatzen duena. HAMU badugu ZU(r)HAMU, HAMETZ, (h)ERHEM-U” espacio: bazterrak” gaur, bainan aintzinean “basamortu“, eta hitzez-hitze (semiotikoki) HER-” aur-” HEM “etxea”(milurteez etxeak zurez egin dira), beraz ERHEM morfologi eraikuntza hau ez da eraikia gaurko elaraudiz ETXE-AUR. Jakina, desertuaren izena lat. *heremus* –tik (Lhande) <<<gr. *hêremos* “basamootu”>>> *hêremizein* “lasai egon“, *hêréma* “lasaiki, emeki, polliki, amiñi bat” etabar. Erromako Latium munhoan arkeologoek argiraturik badakigu aspaldiko zurezko txabol batzu hesiz (sasiz) inguraturikoak zirela, hilerriak eta tenploak bezala (abereek hazka ez zapuzteko), txabola inguru hetsirikoa *FORUM* deitzen zena, gero merkatu-azoka, gero auzitegi, erabaki gune, hots leku publiko, atzain-itzainak hiritartuz eta jaunduz.... Bakotxak ikus dezake FORUM eta HEREM/ERHEM senide direla, bergauza ere naski. Greko-Lat. *domus*, *demos* <<< \**Dem*-“*maison*”erro batetik omen, A.Meillet,183, ahal zuena asmatzen jaun horrek ere .

Lat.**FAMILIA, FAMULUS** “morroi” : Meillet 215 “ mots uniquement attestés dans les dialectes italiens et sans étymologie » . « *Familia* a dû désigner l'ensemble des esclaves et des serviteurs vivant sous un même toit, par opposition à la *gêns* [...] puis la « maison » tout entière, maître d'une part, et femme, enfants et serviteurs vivant sous sa domination » . ausartuko gira HEM-ELIA bezalako zerbait litaiakela hastapeneko eraikuntza, cf. Zub. ELI « talde, multzo », gr.*îlê*, *îlâ* « talde : tropa »<<<aditz *eiléô* « bildu » .

-**HENBOR** (HEM “zuhaitz”+ BOR “barne, barru, tripa”) “tronco”>>> isl. z. *timbr* “etxegintzarako zura”, ALL. *zimmer-man* “zurgina”... MAKIL/MAKUL, Lhande-k lat. *bacillum*-tik, *baculum*, gr. *bakthron*, irl. *bacc* “palo torcido”... denak berdin, Meillet-ek,64 “*bacillum* rapelle la forme irlandaise; mot populaire “.

-**KALAMU** « caña » <<< GARI- HAMU « tallo de cereales : lasto », lat ; *culmus* « rastrojo », gr. *kalamos* « caña », kalamê « lasto : paja », *kalameutês* « igitari : segador », All. z. *Halam*, *Halm* « uztaleku » etabar . Chr.,484 « (kalamos) entre dans une série de mots désignant la tige, le chaume, lett. *Salms* « paille », russe *soloma* « paille », [...] le vocalisme des mots grecs en **kala**- reste donc isolé ». Hitza ebaki behar zen **kal**-, ez **kala**-, cf. eusk. **galbahe**, **galeper**, **galaz**...

**-TARRAPAT** “precipitacion“, **LARREPOT** “langosta saltamonte: xirlixka”<<< TARRATU, TZARRATU, LARRUTU, NARRUTU « arrancar, desollar » + PAT/POT « hatz : pie », denak dio « ankez laster egin, ankez erauzi, zalukara ihes egin “. Parrez gr. *trápētēs* “fugitivo, esclavo fugitivo“, skr. *dravati* “lasterka doha“, drapayati “laster egin-erazi“, gr. *dramein* “laster egin“, 279 “L’origine du thème *drâp-* est inexplicquée “. Hitza ebaki behar zen *dra-* eta ez *drap-*. Goazen gorago :

**-LASTER** <<< LATS (Azk.I, 532)” uhaitz: arroio)+ **TER** “zarraz-,tarras-” diokeena “ zarrastan, zirristan : resbalar“, beraz *zalu*-ren ideia. Parrez gr. *dramein* (L II) “laster egin: correr“, Chtr.296 “Racine \**der-* d’où \**dr-~~ea~~* .(Ikus III. atala). Eta ikus gr. *derein* “larrutu, larraztu, zarrastu... : desollar“, *derma* “larru“; got. *ga- tairan* “urratu“; g.- g. z. (*fir*)-zeran, All. (*ver*)-zehren “larraztu, lit. *deru* “larraztu“.... Bideabar **LARRAZKENA** <<<LARRAZKO-ENA bazterrak (zuhaitzak) buluzten direneko urtaroa ; eta LARRE, LARRAZ (Otxabagi) “erial : hutsik den eremua“.

### 3) -FORMA AORISTAK

Aorista aditzeko garai bat da, greziera, sanskritera ta euskerak daukatena : oraiko elaraudiz *egon izana, eman izana, ikusi izana, orhoitu izana...* eraikuntzaz era iraganekoa da, baina aditzaren ideia hutsa du erakusten, garaiarekilako fisik gabe, adibidez *berria nik ere jakin izanaz* [jakiteaz] *harritu zen, edo harri laiteke, harrituko da...* Noizbaiteko euskal elaraudian bestelako formak izan ditzake : *egon izana* <> EGOITZ, *eman izana* <> EMAITZ . R. Lafont, *Le basque au XVI. siècle*, zalantzan zagon /e-/ , /i-/ , /a-/ aurrezkitu euskal aditz kopuruari begira, “Aryan“-dar hizkuntzetako aorista bezalako bat ote zen ? laster atzerat ere egin, dogmaren beldurrez ? Lekukotasun bezala baditugu erdal klasikoetako forma batzu ia hatz-behatz osorik euskeran, ezin baita erran maileguzkoak ditugun ala noizbaiteko elaraudikideko haztarnak:

**E-BIL-I** //gr. *eple* (L II)” ebil-i izan” *pelô, pelomai* “circular“: “harat-hunat itzulikatu“; **I-GURTZ-I** “gantzutu: uncir“= gantzez edo gurinez torratzen // gr. *ekhrisa* (L II)” gurindu izan“, “gantzutu izan“, <<< *khriô* “igurtzen“-ren aorista <<<Chtr.1277 : “hors du grec pas de rapprochement précis : lit. *gr(i)ejù, griêti* “écrémer le lait :desnatar la leche“. Hortik aditz partizipe izenlagundutik egin izena KHRISTOS, “KRISTO: EI Uncido“.

**EZAGUN** <<<E-ZA-GUN, GUN// got. *kann*, erro-aditz \**gna-* ditaike (Chtr.225), *gn...*, *jñ...*, *zn...*gr.,lat., skr., eslab. *znajo, znati* “ezagutzen“. Ohargarri da eusk. eraren eraikuntza : erdaretan, aurrezki “augment : luzagin” deitu hau, araudiz unkhua ta beste aurrezkiaren artean jartzen da gr. *an-é-gnôsa* “sinets-erazi“; eta ohargarri beste egitura hau ere : gr. *gnôrizô* “zaguterazi“, lat. *ignarus*. ZAGUN, ZAGUTZ... /E-/ luzagina gabe entzuten da, Euskaldun“zaharren”ganik, Homeroren grezieran bezala.

**AHARDI** “urdanda : marrana“, aditz aorista izenlagundu-izendua dugu “ernaria“, deroana, “erdi beharra” diona (urdanda umegile oparoa izanez). Luzagin /A-/ aurkitzen da skr. *abharat* “deroana, ernari“-eb bezala.

*Ohrar 1* : Mintzalarizaleen iritziz indo-europear aditza lehenik izan omen da iraganaren eran asmatu, gertakizuna burutu seinduturik: /-l/ bat ek muturrean liokeena “hemen-orai” solas lekuan . Gure aditz-unxhu ainitz holakoak ditugu : i-kus-i, e-gos-i (aoristak), jauntz-i, jos-l, gel(d)-l, kal-l, erd-l, hand-l, jal-i, elk-l, biz-i.....

*Ohar 2* : bi aorista mota: bat ziztukariarekin (aoriste sigmatique), gure ustez *IZan* da ziztukaria, bestea « *gotorra* » auxiliar gabe *jan izana, jin izana*.